



## Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2023ko apirilaren 18a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

# John Maxwell Coetzee

(Lurmurtur hiria, 1940)


John Maxwell Coetzee Lurmurtur Hirian jaio zen 1940ko otsailaren 9an. Aita afrikanerra zuen eta ama, berriz, alemaniar jatorrikoa. Lurmurtur Hiriko unibertsitatean matematika eta ingelesa ikasi zituen.

Hogei urte inguru zituela, IBM ordenagailuen enpresarako jardun zuen lanean Londresen. 1965-1969 bitartean, doktoregoa lortu zuen Texasgo Unibertsitatean (Austin, AEB), eta ingeles hizkuntza eta literaturako irakasle aritu zen Bufaloko Unibertsitatean.

1971an, erresidentzia baimena ukatu zioten Estatu Batuetan, Vietnamgo Gerraren aurka zuen jarreragatik. Hegoafrikara itzulirik, Lurmurtur Hiriko Unibertsitatean hasi zen ingelesezko literatura irakasten.

1973ean eman zuen argitara bere lehenbiziko lana: **Dusklands**. 2003ko abenduan Literaturako Nobel saria jaso zuen. Azkeneko lan-urteak Chicagon (AEB) eta Adelaiden (Australia) eman zituen. 2006an, australiar hiritartasuna eman zioten.

## Lotsaizuna



52 urteko gizonezko bat, unibertsitateko irakaslea, sexu-afera baten erruz lana galdu eta alaba bizi den etxaldera joango da; naturaren harmonia ez da dirudien bezain lasaia, ordea, mendeetako arrazismoak bere orbainak eta ordainak baititu apartheidaren osteko Hegoafrikan.

Ez da erraza topatzen Coetzee bezain zorrotzik gizarte-talkak gordin eta sakon aztertzen. Kluxe eta zuzentasun guztietatik urruti: arrazen eta kulturen arteko gatazka ez ezik, sexuen artekoa, belaunaldien artekoa, arrazoimenaren eta pasioaren artekoa... Denetan ere barreneraino sartzen du hatza, fikziozko pertsonaien baitan geure arima taupaka sentiarazteraino.

Erritmoa bikain zaintzen duen prosa zehaz eta doi batez, irakurlearen gogoan luzaroan geratzen diren maisulan horietako bat lortu du J.M. Coetzeeek, aspaldi ez brzala mundo osoko kritikaren nahiz publikoaren adostasuna lortu duen Nobel saridunak.

## J. M. Coetzee argitalpenak

*Dusklands* (1974).  
*In the Heart of the Country* (1977).  
*Waiting for the Barbarians* (1980).  
*Life & Times of Michael K* (1983).  
*Foe* (1986).  
*White Writing: On the Culture of Letters in South Africa* (1988).  
*Age of Iron* (1990).  
*Doubling the Point: Essays and Interviews* (1992).  
*The Master of Petersburg* (1994).  
*Boyhood: Scenes from Provincial Life* (1998).  
*Lotsaizuna* (1999) **N COE**  
*The Lives of Animals* (1999).  
*Youth: Scenes from Provincial Life II* (2002).  
*Elizabeth Costello* (2003).  
*Slow Man* (2005).  
*Inner Workings: Literary Essays, 2000-2005* (2007).  
*Diary of a Bad Year* (2007).  
*Summertime* (2009)  
*Jesusen haurtzaroa* (2013) **N COE**  
*Jesusen eskola-egunak* (2016) **N COE**  
*The Death of Jesus* (2019)

## Oskar Arana

Oskar Arana Ibabe, Aramaion jaio zen 1969an.

Zuzenbidean lizentziaduna. Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundean hasi zen itzulpengintzaren munduan. Gaur egun, Arabako Foru Aldundian ari da. **Jokin Zaitegi** literatur itzulpen lehiaketa irabazi zuen 2004an, **JM Coetzee**-ren *Disgrace (Lotsaizuna)* euskaratuta. Harrezkero, makina bat literatur lan itzuli ditu, batez ere **Paul Auster**renak. Halaber, 31eskutik itzulpengintzari eta hizkuntzari buruzko blogean artikulu ugari idatzi ditu.

EIZIEko zuzendaritza batzordean parte hartu zuen bi urtez (lehendakari izan zen 2008an).

## Kritikak esandakoak

“...Oskar Arana itzultzaileak musika-konposizioarekin lotu izan du autore hegoafrikarraren idazkera. Izan ere, armiarma-sare perfektuan harilkatzen ditu Coetzee hainbat eta hainbat gai...Ezer ez da alferrikakoa eleberri honetan. Estiloa ere zuzena da, zehatza (“doia”, Arana itzultzailearen hitzetan) eta, era berean, oso adierazgarria. Elkarrizketak eta isiluneak informazio iturri oso inportanteak dira pertsonaien izaera eta sentimenduak ezagutzeko. Eta narratzailearen ahotsa, sinesgarria; arazoaren barne muinetik datorrena. (Bitxikeria bat: behin ere ez da argitzen pertsonaiak zuriak ala beltzak diren; irakurlea bera da morbosoki bakoitzaren azalaren kolorea igarri nahian dabilena, eta irakurlea da pertsonaia bakoitzaren jokaera arrazaren bidez azaldu nahi duela konturatzean bere buruaz lotsatzen dena). Benetan gomendagarria.”

Isabel Etxeberria Ramirez / Luma berrien eleak, 2005-05

“...Idazle batzuek isiltasuna erabili gura izaten dute gaitzat, Coetzeek ekintzarik eza-edo darabil langai. Eta irakurleari dagokio ezer ez egite horretan irautea ala egoera iraultzen ekitea. Prosa gardena, beirazkoa darabil. Diamantea bezain ederra izanda, gogor-gogorra gertatzen da errealitatea labanarik zorrotzenaren antzera erruki barik ebakitzerakoan eta, behar denean, mozterakoan ere.

Karlos del Olmo / Berria, 2005-02-15

“...Oskar Aranak, Disgrace liburuaren itzultzaileak, gogorarazten digunez, “bere herrikide Nadime Gordimer idazleak behin esan zuenez, Coetzeek asmatzen dituen pertsonaiak hain dira konplexuak, hain aberatsa beren barnea, ezen jende askok bere buruari buruz dakiena baino anitzez gehiago jakiten du idazle honek berak asmatutako fikziozko pertsonaia horiei buruz...”

A. de Amezaga / Bilbao, 2005-02

“...Areago esango nuke, Coetzeeren testurik zailenetakoa delakoan nago. Literatur adituek eta idazleek badute, gainera, zer ikasia bertan: denboraren erabilera aparta baita eta miresgarria, izan ere eleberrri honetan orain denbora baino ez baita ageri. Orain denbora, ongi erabilia, noski. Pasarte guztiak lortzen ditu eta pertsonaiei halako bizitasuna ematen die, eta badirudi koadro batean sartuta daudela, handik atera nahi ez duten koadro batean. Denboraldi horren erabilerak erritmo propioa eta berezia ematen dio testuari: ez arina, ezta motela ere, orainari dagokiona, pertsonaien orainari (haien subjektibitateari dagokiena) dagokiona, lasaia eta zabaltzen dena, gauzak era naturalean zabaltzen eta garatzen diren bezala, zaratarik gabe, oihurik gabe, berez bezala. Prosa ere, esan beharra dago, zehatza da eta doia, hitz bakoitza bere tokian dago, okertzeek, alde egiteke, bere horretan esaten...”

Felipe Juaristi / El Diario Vasco, 2004-12-10

## Erabilitako iturriak

Wikipedia

[https://eu.wikipedia.org/wiki/John\\_Maxwell\\_Coetzee](https://eu.wikipedia.org/wiki/John_Maxwell_Coetzee)

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=1365>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=1241>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=1233>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=1194>

Literaturaren zubitegia

EIZIE

<https://eizie.eus/eu/albisteak/1101281459>

Euskarari ekarriak

<https://ekarriak.armiarma.eus/?i=42>

Nor da Nor

<https://nordanor.eus/nor?id=220&tmp=1675186690493>